

5

MUGIKORTASUNAREN ETA JOAN-ETORRIEN DENBORA

TIEMPO DE MOVILIDAD Y TRAYECTOS

Jesús Arpal Poblador (*)
Matxalen Legarreta Iza ()**

(*) **Soziologiako Katedraduna. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Catedrático de Sociología. Facultad de Ciencias Sociales y de la Información. Universidad del País Vasco.

(**) **Doktorego tesia egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia 2 sailean.**
Está realizando su tesis doctoral en el Departamento de Sociología 2 en la Universidad del País Vasco.

1. INTRODUCCIÓN

El objetivo principal de este trabajo es analizar la estructuración temporal de la población vasca en relación con los desplazamientos y la movilidad, a partir de la Encuesta de Presupuestos de Tiempo (en adelante, EPT) que se realiza de forma quinquenal en la C.A. de Euskadi por parte del Eustat¹.

La EPT emerge como un instrumento idóneo para analizar la movilidad cotidiana² de la población vasca, porque la distancia es fácilmente identificable con el tiempo a través del movimiento, y no resulta extraño hablar de trayectos en términos temporales. Si preguntamos «¿a cuánto está Bilbao de Donosti?», probablemente la respuesta más generalizada sea: «por autopista, a una hora». Cuando calculamos a qué distancia está un lugar de otro, si está cerca o lejos, pocas veces hacemos uso de las dimensiones espaciales; la respuesta generalmente no se da en metros o kilómetros, sino en unidades de tiempo (horas, fracciones de hora o minutos). La distancia entre dos puntos queda definida, de esta forma, en unidades temporales a través del movimiento. El tiempo constituye una dimensión fundamental de los desplazamientos, inseparable del espacio. El análisis de la movilidad cotidiana a través de la EPT permite relacionar dos de las dimensiones básicas de toda actividad: espacio y tiempo³.

Analizar la movilidad cotidiana a través de la EPT nos parece también de gran interés porque las pautas de movilidad ofrecen datos relevantes sobre la estructura social. Tal y como está configurado el espacio urbano moderno, la movilidad y los desplazamientos constituyen un reflejo bastante fiel de la estructura de la sociedad y de las desigualdades sociales. Los comportamientos y pautas de movilidad, están estrechamente relacionados con la estructura social y el entorno al que pertenece el individuo (partiendo del entorno más inmediato, el núcleo familiar). A través del análisis de los desplazamientos podemos lograr información privilegiada sobre algunos aspectos de la realidad social vasca que quizá no se perciban en el análisis de otras actividades. Asimismo, cabe señalar que en la C.A. de Euskadi, ocho de cada diez perso-

¹ Se han realizado Encuestas de Presupuestos de Tiempo en 1993, 1998 y 2003.

² Definimos como movilidad cotidiana aquellos desplazamientos recurrentes o repetitivos que las personas realizan en su día a día, diferenciándolo de esta forma de la movilidad residencial o cambio de domicilio.

³ Cualquier actividad realizada por una persona transcurre en un tiempo de acción y requiere un espacio en el que pueda ser desarrollado. Las relaciones sociales tienen razón de ser porque transcurren en un tiempo y espacio concreto, aunque éstos, en las sociedades de la información, no siempre sean coincidentes. Con la proliferación de las nuevas tecnologías la información y la comunicación se superan las coincidencias entre espacio y tiempo, y las relaciones sociales llegan a configurarse en marcos con dimensiones espacio-temporales difícilmente delimitables.

1. SARRERA

Lan honen helburu nagusia da euskal biztanleriaren denborazko egitura aztertzea joan-etorri eta mugikortasunari dagokienean, Denbora Aurrekontuen Inkesta (aurrerantzean DAI) oinarri hartuta. DAI bost urtean behin egiten du Eustatek Euskal AEn¹.

DAI tresna egokia da euskal biztanleriaren eguneroko mugikortasuna² aztertzeko, distantzia erraz identifika baitaiteke denborarekin mugikortasunaren bidez eta ez da arraroa joan-etorri buruz aritzean denbora erabiltzea. «Donostia Bilbotik zenbatera dago?» galdetuko bagenu, erantzunik ohikoena hau litzateke: «Autopistaz, ordubetera.» Toki bat beste batetik zenbatera dagoen, gertu edo urrun dagoen, kalkulatzeko dugunean, gutxitan erabiltzen ditugu dimentsio espazialak; erantzuna gehienetan ez da metrotan edo kilometrotan ematen, denbora unitateetan baizik (orduetan, orduen frakzioetan edo minutuetan). Bi punturen arteko distantzia, beraz, denbora-unitateetan definitzen da mugimenduaren bidez. Denbora funtsezko dimentsioa da joan-etorrietan, espaziotik bana ezin dena. Eguneroko mugikortasuna DAIn bidez aztertuz gero, jarduera ororen funtsezko bi dimentsio lotzen dira: espazioa eta denbora³.

Eguneroko mugikortasuna DAIn bidez aztertzea oso interesgarria iruditzen zaigu, mugikortasun jarraibideek gizartearen egiturei buruzko datu garrantzitsuak ematen baitizkigute. Hiri-espazio modernoak konfiguraturik dagoen bezala egonda, mugikortasuna eta joan-etorriak gizartearen egituraren eta gizarte-desberdintasunen isla nahiko zuzena dira. Mugikortasun jarrerak eta jarraibideak estu lotuta daude gizartearen egiturarekin eta gizabanakoaren inguruarekin (gertukoenetik hasita, familiaratik). Joan-etorriak aztertuta euskal gizarteko errealitatearen alderdi batzuei buruzko informazio pribilegiatua lor dezakegu, agian beste jarduera batzuen azterketan hautematen ez dena. Era berean, esan beharra dago Euskal AEn hamar pertsonetatik zortzik egunean gutxienez bost minutuko joan-etorriren bat egiten dutela. Gaur egungo gure gi-

¹ Denbora Aurrekontu Inkestak egin dira 1993an, 1998an eta 2003an.

² Eguneroko mugikortasuna dela esaten dugu pertsonen egunen joanean egiten dituzten joan-etorri errepikakor edo errepikariak eta horrela egoitza-mugikortasunetik edo etxetik aldatzetik bereizten dugu.

³ Pertsona batek egindako jarduera oro ekintza-denbora batean gertatzen da eta garatu ahal izateko tokia behar du. Gizarte harremanek izateko zorra dute denbora eta espazio zehatz batean gertatzen direlako, nahiz eta informazioaren gizartearen horiek beti ez diren bat etortzen. Informazio eta komunikazio teknologia berriak ugartu izanarekin espazioa eta denbora bat etortzeak gaintitu egin dira, eta gizarteko harremanak nekez muga daitezkeen espazio-denbora dimentsioak dituzten markoetan konfiguratu dira.

nas realizan algún desplazamiento de una duración mínima de cinco minutos al día. En nuestras sociedades contemporáneas la movilidad es una actividad generalizada, por lo que resulta necesario analizarla.

Este trabajo se ha dividido en seis epígrafes. En el primero se habla sobre la configuración del espacio urbano moderno y la necesidad de circulación como uno de los rasgos distintivos de la sociedad actual. En el segundo, se profundiza sobre las características de la movilidad en las sociedades contemporáneas, haciendo referencia a nuevas formas de movilidad y comunicación generalizadas por la creciente proliferación de las nuevas tecnologías de la información y la comunicación. El tercer apartado se centra en la relación entre movilidad y estructura social, profundizando en un concepto estrechamente relacionado con ésta, la accesibilidad. En el cuarto epígrafe se recogen algunas precisiones metodológicas referidas a las Encuestas de Usos de Tiempo y la movilidad. El quinto apartado recoge el análisis de los datos desde una perspectiva de género, atendiendo a las variables que condicionan el comportamiento de la población en mayor medida. El sexto apartado contiene las conclusiones.

zarteetan mugikortasuna ohiko jarduera da eta beharrezkoa da aztertzea.

Lan hau sei epigrafetan banatu da. Lehenbizikoa hiri-espazio modernoaren konfigurazioari buruzkoa da eta egungo gizartearen ezaugarri bereizleetako bat zirkulatzeko beharra delad dio. Bigarrenean egungo gizarteetako mugikortasunaren ezaugarriak sakondu dira, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien etengabeko hazkundearen ondorioz orokortu diren mugikortasun- eta komunikazio-forma berriei erreferentzia egin zaielarik. Hirugarren atalean mugikortasunaren eta gizarte egituraren arteko harremana da ardatz, eta horrekin estu loturiko kontzeptu batean sakontzen da, irisgarritasunean. Laugarren epigrafean Denbora-erabileren Inkesteei eta mugikortasunari buruzko zehazpen metodologikoak jaso dira. Bosgarrenean datuen azterketa dago genero ikuspegitik, biztanleriaren jokaera hein handienean baldintzatzen duten aldagaiak kontuan hartuta. Seigarren atalean ondorioak daude.

2. CONFIGURACIÓN DEL ESPACIO URBANO MODERNO

El movimiento urbanista moderno del primer tercio del siglo XX formula una propuesta de *ciudad funcional* que se recoge en la Carta de Atenas (Le Corbusier, 1979), de acuerdo con la cual se pretende dar una respuesta a los problemas urbanos de las ciudades industriales del siglo XIX, abigarradas e insalubres, que se constituyen como densos espacios urbanos donde se localizan fábricas y talleres junto a viviendas obreras crecientemente hacinadas. La falta de espacios verdes, de higiene, y un importante déficit de equipamientos, se mezcla con el temor a una posible insurrección de las «clases peligrosas», y la promiscuidad aparece ligada al hacinamiento y la prostitución (Tobío, 1996:61). La *ciudad funcional* se cimienta sobre el imperativo del desarrollo zonal como organizador del espacio urbano, de tal forma que se consigue estructurar el espacio asignando una sola función a cada lugar. Se parte *a priori* de que existen tres funciones urbanas básicas: residencia, trabajo y ocio (Miralles-Guasch, 2002: 28).

La disposición de las actividades y de los servicios en el espacio urbano moderno se caracteriza, de este modo, por una localización diferenciada y fragmentada de las funciones urbanas y, en consecuencia, por la separación espacial y temporal entre las diversas actividades cotidianas (Miralles-Guasch, 2005:9), que configuran los *ritmos funcionales de la ciudad* (Marín, 1984 citado en Díaz Muñoz, 2002).

La zonificación se consolida con un claro sesgo de género: la casa no es simplemente un lugar residencial sino que para la mujer, se relaciona con las tareas domésticas y de cuidados. El lugar de trabajo, por su parte, se identifica con el trabajo remunerado, el empleo, y es un espacio masculino. La diferenciación funcional se basa en una rígida división del trabajo según el género, y en un modelo de familia nuclear. Se consolida en el espacio el discurso de la domesticidad, que empieza a tomar forma en la época isabelina. La ideología de la domesticidad identifica a la mujer con su función maternal y la relega a la casa y al cuidado de los miembros de la familia. La maternidad y la domesticidad acaban siendo sinónimos de feminidad, a la vez que se consideran identidades primarias de la mujer, «*ángel del hogar*», de las que derivan una posición social concreta y unas adscripciones espacio-temporales determinadas⁴.

Asimismo, la ciudad zonificada, ordenada y cartesiana, está diseñada para la circulación y el uso masivo del transporte privado. Las ciudades y la sociedad urbana representan, de este modo, la configuración sociocultural del espacio físico donde se ha afrontado la movilidad moderna de manera integral. Como circulación e intercambio, se crean representaciones y acciones de movilidad que, paradójicamente, plantean problemas de congestión, inseguridad y nuevas distancias (sociales y culturales). La zonificación espacial repercute de forma decisiva en las pautas de movilidad, que contribuyen a consolidar unos patrones diferenciales según el género⁵. De acuerdo con este modelo, las mujeres tienen un espacio cotidiano más reducido y realizan sus desplaza-

⁴ Sobre la ideología de la domesticidad ver Arbaiza (2000), Aresti (2000) y Nash (1993).

⁵ El estudio de los patrones diferenciales de la movilidad femenina, con respecto a la masculina, se considera la primera línea de trabajo empírico que se desarrolla en la Geografía Urbana desde una perspectiva de género (Sabaté, 1995:179).

2. HIRI-ESPASIO MODERNOAREN KONFIGURAZIOA

XX. mendeko lehen hereneko mugimendu urbanista modernoak formulatzen du *hiri funtzionalaren* proposamena da eta Atenasko Gutunean jasota dago (Le Corbusier, 1979). Horren arabera, XIX. mendeko hiri industrialetako hiri-arazoei erantzuna eman nahi zaie. Hiri horiek, nahasiak eta osasunaren kalterakoak, hiri-espazio dentsuak dira eta lantegiak eta tailerrak daude gero eta pilatuago dauden langileen etxebizitzan ondoan. Espazio berde gutxi, higiene gutxi eta ekipamenduetan defizit handia «talde arriskutsuen» balizko altxamendu bati zaion beldurrarekin nahasten dira eta promiskuitatea pilaketari eta prostituzioari lotuta ageri da (Tobío, 1996:61). *Hiri funtzionalaren* oinarrian dago inguruko garapena hiri-espazioaren antolatzaile izatea, eta hiria egituratzera-koan toki bakoitzari funtzio bakarra ematen zaio horrela. *A priori* hiriaren oinarriko hiru funtzio daudela hartzen da oinarri gisa: egoitza, lana eta aisia (Miralles-Guasch, 2002: 28).

Hiri-espazio modernoan jarduerak eta zerbitzuak jartzerakoa, beraz, hiri funtzioak desberdinduta eta zatituta jartzea izango da ezaugarrietako bat eta ondorioz, eguneroko jarduerak espazioan eta denboran banatu egingo dira (Miralles-Guasch, 2005:9), eta horiek konfiguratzeko dituzte *hiriaren erritmo funtzionalak* (Marín, 1984 Díaz Muñozen aipatua, 2002).

Zonifikazioa genero ukitu nabarmenarekin finkatu da: etxea ez da bizitzeko toki hutsa, baizik eta, emakumearen kasuan, etxeko eta zaintza lanekin lotzen da. Laneko tokia, aldiz, ordaindutako lanarekin identifikatzen da, enpleguarekin, eta gune maskulinoa da. Desberdintasun funtzionalaren oinarrian generoaren arabera egindako lanaren banaketa zorrotza eta familia nuklear ereduak daude. Etxekotzearen diskurtsoa espazioan kontsolidatu da, garai isabeldarrean itxura hartzen hasi ondoren. Etxekotze ideologiak emakumea amatasun funtzioarekin identifikatzen du eta etxera eta etxeko kideen zaintzara zokoratzen du. Amatasuna eta etxekotzea feminitatearen sinonimo izatera iritsi ziren eta emakumearen nortasun primariotzat ere hartu ziren, «*etxeko aingerua*», hor-tik datoz gizartean posizio zehatz bat eta espazio-denbora adskripzio jakin batzuk izatea⁴.

Era berean, hiri zonifikatua, ordenatua eta kartesiarra zirkulaziorako eta garraio pribatua modu masiboan erabiltzeko diseinatuta dago. Hiriak eta hiri-gizarteak horren bidez adierazten dute espazio fisikoaren konfigurazio soziokulturala, non mugikortasun modernoari modu integralean aurre egin zaion. Zirkulazio eta truke gisa mugikortasun-errepresentazioak eta ekintzak sortzen dira eta, horiek, paradoxikoki, kongestio, segurtasun gabezia eta distantzia berrien (sozialak eta kulturalak) arazoak sortzen dituzte. Espazioa zonifikatzeak ondorio eraginkorra du mugikortasun jarraibideetan, eta jarraibide horiek generoaren arabera patroi desberdintzaileak finkatzen laguntzen dute⁵. Eredu horren arabera, emakumeek eguneroko-bizitza espazio txikiagoa dute eta joan-etorriak batez ere

⁴ Etxekotze ideologiari buruz ikus Arbaiza (2000), Aresti (2000) eta Nash (1993).

⁵ Mugikortasun femeninoa maskulinoetik bereizten duten patroiaren azterketa Giza Geografian genero ikuspegitik garatzen den lehen lan-lerro enpirikoa da (Sabaté, 1995:179).

mientos mayoritariamente a pie o en transporte público puesto que el vehículo privado pertenece al *cabeza de familia*, quien tiene que realizar desplazamientos de mayor recorrido para ir al lugar de trabajo y cumplir así con su función de *ganapán* (*male breadwinner*)⁶.

La propuesta funcionalista refuerza la segregación espacio-temporal de ciertos usos y grupos sociales, no sólo entre hombres y mujeres, sino que las personas mayores, los niños y niñas y las personas con alguna discapacidad quedan igualmente excluidas de la planificación urbana. Esta configuración urbana moderna hace referencia a un *espacio real*, pero también *simbólico* (Tobío, 1996:65). La ciudad produce nuevas formas de poder y de estructuración de la sociedad, de «producción de ciudadanos» (Lefebvre, 1978). La movilidad se relaciona también con el concepto de *movilidad vertical* (Sorokin, 1961), y hace referencia no tanto a la movilidad espacial⁷, sino a una concepción más sociológica: la movilidad social.

oinez edo garraio publikoan egiten dituzte, ibilgailu pribatua *familiako buruarena* baita, eta horrek ibilbide luzeagoa egin behar du lanera joateko eta *ogi irabazle* funtzioa betetzeko (*male breadwinner*)⁶.

Proposamen funtzionalistak indartu egiten du erabilera eta talde batzuen espazio-denborazko bazterketa, ez gizon eta emakumeen artean soilik, baizik eta adinekoak, haurrak eta ezintasunen bat duten pertsonak ere hiri planifikaziotik kanpo gelditzen dira. Hiri-konfigurazio moderno horrek *espazio erre- al* bati erreferentzia egiten dio, baina baita *sinbolikoari* ere (Tobío, 1996:65). Hiriak gizartearen egituratze eta botere forma berriak sortzen ditu, «hiritarren produkzio» forma berriak (Lefebvre, 1978). Mugikortasuna *mugikortasun bertikal* kontzeptuarekin ere lotzen da (Sorokin, 1961), eta ez dio horrenbesteko erreferentzia egiten mugikortasun espazialari⁷, baizik eta kontzeptzio soziologikoagoa bati: gizarte-mugikortasuna.

⁶ Con la asignación del *salario familiar* a finales del siglo XIX (Arbaiza, 2003) se consolida la figura del ama de casa y el modelo *male breadwinner* (sobre la configuración del modelo *male breadwinner family*, Pérez-Fuentes, 2003). Sobre la persistencia de este modelo en la sociedad actual, Torns (2004).

⁷ Relacionado con los desplazamientos realizados desde un lugar físico a otro lugar distinto al de origen (*movilidad horizontal*) (Sorokin, 1961).

⁶ XIX mende amaieran *familiako ordainsaria* jarri zenean (Arbaiza, 2003) etxekoandarearen irudia indartu egin zen eta *male breadwinner* eredu ere bai (*male breadwinner family* ereduaren konfigurazioaren gainean, Pérez-Fuentes, 2003). Gaur egungo gizartearen eredu horren iraupenari buruz, Torns (2004).

⁷ Toki fisiko batetik jatorrizkoa ez den beste toki batera egiten diren joan-etorriekin lotua (*mugikortasun horizontala*) (Sorokin, 1961).

3. LA MOVILIDAD EN LAS SOCIEDADES CONTEMPORÁNEAS

En las sociedades contemporáneas, la generalización del automóvil privado (después de la modernización fordista) y la creciente proliferación de las nuevas tecnologías de la información y comunicación han hecho «converger en la vida cotidiana nuevas formas de movilidad e intercambio en las que la movilidad física convive con la conectividad telemática» (Oliva, 2004:1). En la «nueva telépolis» (J. Echeverría, 1999), con la alteración de los marcos espacio-temporales (M. Castells, 1997), la ciudad y sus habitantes se redefinen. La nueva inmediatez (espacial y temporal), las nuevas *presencialidades* y simultaneidades, afectan de forma definitiva a la concepción y la práctica de la movilidad. Las innovaciones tecnológicas (tanto del transporte y de la comunicación de los sujetos y objetos, como de la planificación y programación de actividades y relaciones) han afectado significativamente a los tiempos de la movilidad (cantidades de tiempo y ritmos).

Asimismo, en las últimas décadas, con la creciente (re)incorporación de la mujer al mercado laboral⁸ la diferenciación entre ambas formas del uso del espacio (una, tradicionalmente femenina, basada en los trayectos diversificados de corto alcance en torno a la vivienda, y otra, tradicionalmente masculina, basada en desplazamientos de largo alcance al empleo) da paso a la *superposición*, ya que muchas mujeres realizan funciones laborales extradomésticas y funciones de mantenimiento del hogar, desplazándose cotidianamente en el espacio según ambos tipos de trabajo (Tobío, 1996:68). La «imposible conciliación» entre el trabajo remunerado extradoméstico y el doméstico y de cuidados (Torns, 2004), junto con un acceso más restringido al vehículo privado por parte de las mujeres, se traduce en una *movilidad potencial reducida*, que motiva a muchas de ellas a aceptar empleos localizados a distancias cercanas al hogar, condicionando, en ocasiones, su acceso al mercado de trabajo y menguando su promoción laboral.

La generalización de la movilidad cotidiana a todas las prácticas sociales se ha convertido en una característica definitoria de las sociedades contemporáneas. De este modo, la experiencia urbana se halla determinada en nuestros días por las formas que adopta nuestra circulación sucesiva y reiterada por los espacios de trabajo, de consumo, de ocio y las relaciones sociales (Oliva, 2004). Las sociedades contemporáneas se caracterizan por una estructura de movilidad que ha sido definida como *sedentarismo-nómada* (Bericat, 1994), que supone una configuración del espacio vital en función de una pauta intensa y compleja de movilidades en múltiples dimensiones (biológica, mecánica y electrónica). De modo que «vivimos conjuntamente en un espacio biológico o peatonal, en un espacio mecánico o vehicular y en un espacio electrónico o audiovisual⁹» (Bericat, 2005:16). El *sedentarismo-nómada* hace referencia a una estructuración del movimiento

⁸ Hablamos de (re)incorporación porque en las primeras etapas de la industrialización tanto las mujeres como los niños y niñas participan de forma significativa en la realización de tareas remuneradas. Así lo demuestran, entre otros, los trabajos de Scoot (1993) y Nash (1993), Arbaiza (2000, 2003) y Pérez-Fuentes (2003).

⁹ La movilidad electrónica se configura a partir de la comunicación a través del telégrafo, y más adelante, la radio y la televisión, hasta lograr la bidireccionalidad con el teléfono e Internet, red de redes, que promueve «un fabuloso hiperespacio audiovisual» (Bericat, 2004:16).

3. MUGIRKOTASUNA GAUR EGUNGO GIZARTEETAN

Gaur egungo gizarteetan, auto pribatua orokortu egin denez (modernizazio fordistaren ondoren) eta informazio- eta komunikazio-teknologia berriak asko ugaritzen ari direnez, «eguneroko bizitzan mugikortasun eta elkartruke mota berriak sortu dira mugikortasun fisikoa eta konektibitate telematikoa elkarrekin bizi direla» (Oliva, 2004:1). «Telepolis berrian» (J. Echeverría, 1999), toki-denbora markoak alteratuta (M. Castells, 1997), hiria eta bertako biztanleak birdefinitu egiten dira. Berehalakotasun berriak (toki eta denborazkoak), *bertaratze* eta aldiberekotasun berriek behin betiko eragina dute mugikortasunaren kontzepzioan eta praktikan. Berrikuntza teknologikoez (nola garraioan eta subjektu-objektu komunikazioan, hala jardueren eta harremanen planifikazioan eta programazioan) modu esanguratsuan eragin diete mugikortasun denborei (denbora eta erritmo kopuruari).

Halaber, azken hamarkadetan emakumea lan merkatuan asko (ber)sartu dela eta⁸ espazioa erabiltzeko bi moduen arteko bereizketaren ordez (bata, tradizioz femeninoa, etxe inguruko joan-etorri laburretan oinarritua eta bestea, tradizioz maskulinoa, enplegura joateko desplazamendu luzeetan oinarritua) *gainjartzea* dago orain, izan ere emakume askok etxetik kanpo egiten du lana eta etxea mantendu ere bai, beraz, egiten dituzten joan-etorriak bi lan mota horien arabera izaten dira (Tobío, 1996:68). Etxetik kanpoko ordaindutako lanaren eta etxeko lanen eta zaintza lanen arteko «ezinezko kontziliazioak» (Torns, 2004) eta emakumeek ibilgailu pribatua eskura izateko aukera urriagoek, *mugikortasun potentzial murriztua* dakarte eta horren ondorioz emakumeetako askok etxetik gertu dauden enpleguak onartzen dituzte eta zenbaitetan horrek baldintzatu egiten du lan merkatuan sartzea eta lanean gora egiteko aukerak murriztu ere bai.

Eguneroko mugikortasuna gizarteko praktika guztietara orokortu izana da gaur egungo gizartearen ezaugarriarik definitzaileenakoa. Horrela, bada, gaur egun hiri-esperientzia honakoek zehazten dute: laneko, kontsumoko, aisiako eta gizarteko harremanetarako espazioetan gure etengabeko eta behin eta berriroko zirkulazioak hartzen dituen formek (Oliva, 2004). Gaur egungo gizarteek duten mugikortasun egitura esanguratsua *sedentarismo-nómada* bezala definitu dute (Bericat, 1994), horrek esan nahi du bizi-espazioa dimentsio ugariko (biologikoa, mekanikoa eta elektronikoa) mugikortasun jarraibide intentsu eta konplexu baten arabera konfiguratzeko dela. Beraz, «aldi berean bizi gara espazio biologikoan edo oinezkoan, espazio mekanikoan edo ibilgailuenean eta espazio elektronikoa edo ikus-entzunezkoan⁹» (Bericat, 2005:16). *Sedentarismo-nomadak* mugimenduaren egiturazteari egiten dio erreferentzia etengabe batetik bestera doa-

⁸ (Ber)sartu esan dugu industrializazioko hasierako aldi nola emakumeek hala haurrek partehartze esanguratsua baitzuten ordaindutako lanetan. Hala adierazten dute, besteak beste, honako lanek: Scoot (1993) eta Nash (1993), Arbaiza (2000, 2003) eta Pérez-Fuentes (2003).

⁹ Mugikortasun elektronikoa telegrafo bidezko komunikaziotik taxutu zen eta geroago irrati eta telebista bidezkoetik eta bi norabidetakoa izatea lortu da telefonoaren eta interneten bidez, sareen sarea, «ikus-entzunezko hiperespazio ikusgarria» sustatzen duena (Bericat, 2004:16).

que se desplaza incesantemente rotando sobre unos mismos ejes (la casa, el trabajo, el lugar de compras, las visitas a familiares y amigos, la segunda residencia, etc.). El hogar supone el punto de rotación con mayor poder de atracción, el anclaje vital más relevante. La vida exige movimiento, pero también exige, al mismo tiempo, estabilidad y quietud (Bericat, 2005:16).

Conjuntamente, como resultado de la extensión y generalización de los procesos de ampliación de los mercados regionales, a partir de la globalización económica, se intensifican las tendencias a la aceleración de los procesos de urbanización que inciden en un incremento de la movilidad motorizada (Fernández Durán, 1999:27). Esta forma de estructuración espacial (y consecuentemente temporal) no sólo promueve desigualdades sociales, sino que plantea también serios problemas medioambientales. Desde una perspectiva crítica se argumenta que la situación actual, derivada de pretender garantizar en la mayor parte de las ciudades la movilidad en vehículo privado, ha llegado a producir una movilidad reducida por los fenómenos de congestión inherentes al transporte en automóvil, que afectan a todo el transporte de superficie. Se llega así en muchas ciudades a «una falta global de movilidad» y un «coste medioambiental elevadísimo» (Colomer, 1990:15). Distintos autores y autoras han advertido de los límites de esta forma de entender la movilidad y de los efectos que comporta para el medio ambiente a escala global y local¹⁰, subrayando la incompatibilidad entre el aumento del transporte motorizado y el necesario equilibrio ecológico derivado de la actividad humana (Fernández Durán, 1999).

En este contexto, la calidad de vida de los habitantes de una localidad depende cada vez más de los desplazamientos que tengan que realizar y de los desplazamientos que puedan realizar¹¹ (Bericat, 2005:19). La *movilidad real* y la *movilidad potencial* obedecen a la obligatoriedad de los desplazamientos y el poder de decisión que tienen las personas y los grupos sociales sobre su realización. La movilidad cotidiana es, por lo tanto, una cuestión fundamental de la calidad de vida, vinculada a las oportunidades de relación y actividad de todos los ciudadanos y ciudadanas (Díaz Muñoz, 2003:1). En aras de un desarrollo sostenible¹², se defiende el proyecto de una ciudad compacta y multifuncional, en la que se priorice la circulación en transporte público y a pie, y se garantice la accesibilidad a todos los ciudadanos y ciudadanas. Se parte, en definitiva, de la premisa de considerar «el derecho a la ciudad» (Lefebvre, 1978) como un derecho universal.

nari ardatz berdinen gainean biraka (etxea, lana, erosketa tokiak, familiakoei eta lagunei bisita, bigarren etxebizitza, etab.). Etxea da erakarpen indar handieneko errotazio puntua, bizitzako aingura nagusia. Bizitzak mugimendua eskatzen du, baina egonkortasuna eta gelditasuna ere eskatzen du aldi berean, (Bericat, 2005:16).

Era berean globalizazio ekonomikoaz geroztik eskualdeetako merkatua zabaltzeko prozesuak hedatu eta orokortu egin direnez, urbanizazio prozesuen azelerazio joerak ere areagotu egin dira eta horrek motordun mugikortasuna hazi egiten du (Fernández Durán, 1999:27). Espazioa (eta ondorioz denbora) egituratzeko modu horrek gizartean desberdintasunak sortzen ditu eta ingurumen arazo larriak planteatu ere bai. Ikuspegi kritikotik argudiatzen da gaur egungo egoera hiririk gehienetan ibilgailu pribatuan mugitzea bermatu nahi izanak eragin duela; horrek mugikortasuna mugatu egin du, autoan ibiltzeak ilarak baitakartza eta lurrazaleko garraio denetan du eragina. Hiri askotan «mugikortasun gabezia globala» dago eta «ingurumen kostu oso handia» (Colomer, 1990:15). Egile askok ohartarazi dute mugikortasuna ulertzeko modu honen mugez eta ingurumenerako maila globalean eta tokikoan¹⁰; duen eraginaz motordun garraioa gehitzea eta giza-jardueren ondorioz behar den oreka ekologikoa bateraezinak direla azpimatzu (Fernández Durán, 1999).

Testuinguru honetan, herri bateko biztanleen bizi-kalitatea egin behar dituzten eta egin ditzaketen joan-etorrien mende dago gero eta gehiago¹¹ (Bericat, 2005:19). *Mugikortasun erreala* eta *mugikortasun potentziala* joan-etorrien nahitaez-kotasunaren eta horiek egiteko pertsonak eta gizarte-taldeek duten erabakimenaren mende daude. Eguneroko mugikortasuna, beraz, bizi-kalitatearen funtsezko gaia da, hiritar guztiek harremanetarako eta jardueretarako dituzten aukerei lotua (Díaz Muñoz, 2003:1). Garapen jasangarriaren mesedetan¹², hiri konpaktu eta multifuntzionalaren proiektua defendatzen da, zirkulazio gehiena garraio publikoan eta oinez egingo dena eta hiritar guztien irisgarritasuna bermatzen duena. Horren oinarrian dagoen premisa da «hiria izateko eskubidea» (Lefebvre, 1978) eskubide unibertsal gisa hartzea.

¹⁰ El recalentamiento de la atmósfera y el cambio climático que ello conlleva, entre otros, se realiza una crítica desde una perspectiva medioambiental al sistema de transportes generalizado en Conde, 2003.

¹¹ En este sentido, Bericat reivindica tanto «el derecho a la movilidad como el derecho a la quietud», en una «nueva estructura espacial en la que los seres humanos tengamos que desplazarnos menos pero, al mismo tiempo, podamos desplazarnos con mayor libertad» (Bericat, 2005).

¹² La revista Inguruak ha dedicado dos monográficos al desarrollo sostenible: Inguruak (1999) «Hermes y Gaia: Medios de Comunicación y Políticas de Medio Ambiente», nº 24 e Inguruak (2001) «Hermes y Gaia II», nº 31.

¹⁰ Atmosfera berotu eta horrek dakarren klima-aldaketa besteak beste. Kritikatu egin da ingurumen ikuspegitik orokortuta dagoen garraio sistema hemen: Conde, 2003.

¹¹ Zentzu honetan Bericat-ek errebendikatzen du «nola mugikortasunerako eskubidea hala geldirik egotekoa», «egitura espazial berri batean, non gizakiok gutxiago desplazatu beharko garen, baina, aldi berean, askatasun gehiagorekin desplaza gaitzekoen» (Bericat, 2005).

¹² Inguruak aldizkariak bi monografiko eskaini dizkio garapen jasangarriari: Inguruak (1999) «Hermes y Gaia: Medios de Comunicación y Políticas de Medio Ambiente», 24. zk., eta Inguruak (2001) «Hermes y Gaia II», 31. zk.

4. MOVILIDAD Y ESTRUCTURA SOCIAL

La movilidad no sólo se identifica con la circulación, se relaciona también con «la capacidad de desplazarse» (del Caz, 2005: 11). Es la mayor o menor facilidad de desplazarse entre dos puntos, y está estrechamente ligada al concepto de accesibilidad (Colomer, 1990:10). Se entiende por accesibilidad la capacidad que posee un lugar para ser alcanzado desde diferentes localizaciones geográficas (Seguí y Martínez, 2004:44). No obstante, la accesibilidad no es una característica espacial neutra; algunos trabajos parten de definiciones más complejas y entienden ésta como «la capacidad que un territorio ofrece a cada ciudadano, con la mayor independencia posible de sus condicionantes económicos y sociales, de llegar en condiciones razonables a todos aquellos lugares que sustentan el normal desarrollo de la vida laboral y social» (Miralles-Guasch, 2005:145). Lo que significa que una planificación urbana y territorial adecuada debe garantizar a todos los ciudadanos y ciudadanas las mismas condiciones y oportunidades de desplazarse, sin que ello condicione su participación social y económica y sus relaciones sociales.

Como señala Miralles-Guasch, «una ubicación es más accesible cuanto más universales son los medios de transporte disponibles para desplazarse hasta ella». Esta autora afirma que el servicio que se presta resulta más importante que las infraestructuras que han sido diseñadas para ello¹³ (Miralles-Guasch; 2005,145-146). Generalmente, realizar un tipo de desplazamiento u otro, o dedicar más o menos tiempo a un trayecto, no es algo que la persona que se desplaza decide libremente y de forma autónoma. Las líneas y servicios de transporte de un territorio las establece la administración pública, el horario y el tiempo que dura un trayecto no dependen solamente de la persona que lo realiza, sino que tiene mucho que ver con las infraestructuras del territorio y los servicios que éste ofrece.

Asimismo, la accesibilidad no es sólo un atributo de los lugares, sino también de las personas y los grupos sociales. La accesibilidad espacial no significa accesibilidad social (Díaz Muñoz, 2003:4). Algunos de los aspectos más importantes relacionados con la movilidad cotidiana, como las diferencias en el uso del transporte público y privado, no expresan solamente unas relaciones espaciales, sino, y sobre todo, reflejan un orden social construido (Oliva, 2004:8). El género, la edad, la clase social o la situación ocupacional son determinantes en las pautas y estrategias sociales generalizadas en relación a la movilidad cotidiana¹⁴.

Utilizar un medio de transporte u otro depende muchas veces de una decisión que se toma en el núcleo familiar y no tanto a nivel individual. Las condiciones de movilidad dentro de un hogar serán muy variables en función del acceso o no a determinados medios de transporte, como también de la edad

¹³ Otros trabajos subrayan que el transporte no se limita a tener únicamente carácter funcional (transporte de pasajeros, movilidad o accesibilidad), también se le asigna un carácter de dinamizador económico de un área o territorio o un carácter de representación de una ciudad sujeta a nuevas transformaciones urbanas. Éste sería el caso del Metro de Bilbao, puesto que tan importante como la necesidad objetiva del mismo es el arquitecto que lo diseña (Norman Foster) y su papel como potencializador de una imagen de revitalización urbana de un área en declive, esto es, su dimensión simbólica (Antolín, 1999:58-59).

¹⁴ Así lo demuestran los estudios de Díaz Muñoz (2003); Oliva (2004) y Aragay (2004).

4. MUGIRKOTASUNA ETA GIZARTE-EGITURA

Mugikortasuna ez da zirkulazioarekin bakarrik identifikatzen «desplazatzeko gaitasunarekin» ere lotzen da (del Caz, 2005: 11); bi punturen artean desplazatzeko erraztasun handiagoa edo txikiagoa da eta irisgarritasun kontzeptuarekin estu lotuta dago (Colomer, 1990:10). Irisgarritasuna leku baten toki geografiko desberdinetatik iristeko duen gaitasuna da (Seguí eta Martínez, 2004:44). Baina irisgarritasuna ez da ezaugarri espazial neutroa; lan batzuk definizio konplexuagoetatik abiatzen dira eta irisgarritasuna dela diote «lurralde batek hiritar bakoitzari eskaintzen dion gaitasuna –baldintza ekonomiko eta sozialekiko ahalik eta independentzia handienarekin- arrazoizko baldintzetan iristekoa lan- eta gizarte-bizitza normal garatzen den toki guztietara» (Miralles-Guasch, 2005:145). Horrek esan nahi du hiri- eta lurralde-planifikazio egokiak hiritar guztiei bermatu behar dizkiela desplazatzeko baldintza eta aukera berdinak, horrek hiritar horien partehartze sozial eta ekonomikoa eta gizarte-harremanak baldintzatu gabe.

Miralles-Guasch-ek dioen bezala, «kokapen bat irisgarriagoa da bertaratzeko garraio bideak unibertsalagoak diren heinean». Egile honek dio eskaintzen den zerbitzua garrantzitsua dela horretarako diseinatutako azpiegiturak baino¹³ (Miralles-Guasch; 2005,145-146). Gehienetan mota bateko edo besteko desplazamendua egitea, edo joan-etorri batean denbora gehiago edo gutxiago igarotzea ez da desplazatzen den pertsonak askatasunez eta modu autonomoan erabakitzen duen zerbait. Lurralde bateko garraio lerroak eta zerbitzuak administrazio publikoak ezartzen ditu, joan-etorri baten ordu-tegia eta iraupena ez daude egiten duen pertsonaren mende bakarrik, baizik eta zerikusi handia du lurraldeko azpiegiturekin eta honek eskaintzen dituen zerbitzuekin.

Era berean, irisgarritasuna ez da tokien atributua bakarrik, baita pertsonena eta gizarteko taldeena ere. Irisgarritasun espazialak ez du irisgarritasun soziala dagoenik esan nahi (Díaz Muñoz, 2003:4). Eguneroko mugikortasunarekin loturiko alderdirik garrantzitsuenetako batzuek, hala nola garraio publikoa eta pribatua erabiltzean dauden aldeek, ez dituzte harreman espazialak bakarrik adierazten, baita, eta batez ere, eraikitako ordena soziala islatu ere (Oliva, 2004:8). Generoa, adina, gizarteko maila edo egoera okupazionala determinatzaileak dira gizarteko jarraibide eta estrategia orokortuetan eguneroko mugikortasunari dagokionean¹⁴.

Garraio bide bat edo beste erabili askotan familian hartzen den erabaki baten mende egoten da eta ez norbanako mailan hartzen denaren mende. Etxe bateko mugikortasun baldintzak oso aldagarriak izango dira garraio bide batzuk esku-izatearen edo ez izatearen arabera, baita adinaren eta kide

¹³ Beste lan batzuek azpimarratzen dute garraioa ez dela mugatzen izaera funtzionala izatera (bidaiariak garraiatu, mugikortasuna edo irisgarritasuna), eremu edo eskualde bateko dinamizatzaile ekonomiko izaera ere ematen diote edo hiri baten ordezkari izaera, hirieraldaketa berrien mende. Hori litzateke Bilboko Metroaren kasua, izan ere metroaren behar objektiboa bezain garrantzitsua baita diseinatu duen arkitektoa (Norman Foster) eta beheraka zihonan eremu baten hiri-rebitalizazio irudia sustatzeko zeregina, hau da, dimentsio sinbolikoa (Antolín, 1999:58-59).

¹⁴ Hala adierazten dute honakoekin ikerketek: Díaz Muñoz (2003); Oliva (2004) eta Aragay (2004).

o del tiempo disponible de cada uno de sus miembros (Díaz Muñoz, 2003:4). En muchos hogares es el *cabeza de familia* el que utiliza el vehículo privado y el resto de la familia solamente puede hacer uso de él cuando éste no lo necesita. En ocasiones, la adquisición de un segundo vehículo se justifica con la llegada de los hijos/as para dotar así de más autonomía y movilidad a la madre, que es la que se hace cargo de las criaturas en mayor medida. Las relaciones de género y de generación condicionan estas decisiones.

El análisis de la movilidad cotidiana, por lo tanto, resulta un buen indicador de las relaciones sociales, de las desigualdades y la calidad de vida de las personas, y se relaciona con el concepto de accesibilidad, que no sólo tiene que ver con los medios de transporte, o la planificación territorial, sino que está condicionada también por la estructura social y el entorno al que pertenece el sujeto. A la hora de analizar la movilidad es importante, por lo tanto, estudiar el tiempo dedicado a los desplazamientos, pero también los motivos por los que se realizan, las estrategias de movilidad y los medios de transporte utilizados.

bakoitzak duen denboraren arabera ere (Díaz Muñoz, 2003:4). Etxe askotan *familiako burua* da ibilgailu pribatua erabiltzen duena eta familiako besteek honek behar ez duenean bakarrik erabil dezakete. Zenbaitetan, bigarren ibilgailu bat erostea justifikatu egiten da seme-alabak izatean, amak autonomia eta mugikortasun gehiago izan dezan; ama baita haurren kargu egiten dena hein handi batean. Genero eta belaunaldi harremanek baldintzatzen dituzte erabaki horiek.

Eguneroko mugikortasuna aztertzea, beraz, gizarte harremanen, desberdintasunen eta pertsonen bizi-kalitatearen adierazle ona da eta irisgarritasun kontzeptuarekin lotzen da; kontzeptu horrek ez du zerikusi bakarra garraiobideekin edo lurralde planifikazioarekin, baizik eta gizarte egiturekin eta subjektuaren inguruarekin ere badu zerikusia. Mugikortasuna aztertzean, beraz, garrantzitsua da desplazamenduetan igarotzen den denbora aztertzea, baita horiek zergatik egiten diren, mugikortasun estrategiak eta erabiltzen diren garraiobi-deak aztertzea ere.

5. TRANSPORTE Y MOVILIDAD EN LAS ENCUESTAS DE USOS DEL TIEMPO

Desde la definición aristotélica de movimiento, como el tiempo que media o transcurre entre un punto del espacio y otro, la movilidad en la civilización occidental queda definida como desplazamiento entre localizaciones en el espacio que conlleva un coste de tiempo. La circulación plantea superaciones de la distancia entre dos puntos, pero esta distancia salvable a través de diferentes acciones y vehículos presupone y requiere un monto de tiempo; tal como se expresa comúnmente: un *espacio de tiempo*. El tiempo constituye una dimensión fundamental en los desplazamientos, inseparable del espacio (Díaz Muñoz, 2003:3). Es quizá en la movilidad donde mejor se refleja la relación entre las dimensiones espacio-temporales de una actividad.

En la EPT los datos de transporte y movilidad hacen referencia al tiempo cronométrico que una persona dedica a desplazarse de un lugar físico a otro. Los tiempos de desplazamiento se entienden como superación de distancias en el espacio. El desplazamiento se concibe como una actividad instrumental, puesto que su fin último es posibilitar la realización de otras actividades que tienen lugar en localidades diferentes a las que se encuentra el sujeto originariamente. De este modo, la EPT informa tanto de los tiempos medios que dedica la sociedad en su conjunto a desplazarse¹⁵ (tiempo medio social¹⁶), como de los tiempos que dedica a desplazarse solamente aquella parte de la población que realmente lo hace (tiempo medio por participante).

